

2012ko ekitaldiaren amaieran, Getxoko Udalak egoera ekonomiko saneatua du, sarrerak jaitsi diren arren

2012ko ekitaldiaren amaieran, Getxoko Udalak aurrekontu-orekari eutsi dio. Sarrerak jaitsi egin dira (2011n baino 8 milioi euro gutxiago), eta horri aurre egiteko, gastu arruntak gutxitu eta inbertsio-ahalegina moteldu da. Horri esker, kontuak konpentsatu ahal izan dira. Iazko aurrekontuaren likidazioak eskaintzen duen balantze ekonomiko-finantzarioari esker, ekitaldiaren amaieran, diruzaintzako geldikina 2011ko maila berean kokatu da.

2012ko ekitaldiko kontuen likidazioan, ekitaldia amaitu eta ia-ia hilabete geroago onetsitakoan, ikus daitekeen ekonomia eta finantza agertokiari esker, 2013. urteari nolabaiteko lasaitasunez heldu ahal zaio. Getxo gai izan da zerbitzuen prestazio mailari eusteko (gizarte-politikak, kalitateari eta ekonomia-sustapenari lotutako oinarrizko zerbitzuak) eta abian dauden proiektu estrategikoen finantzaketa bermatzeko. Hala ere, ezinbestekoa da zorrotasun ekonomikoa eta gehiengo zuhurtzia izatea.



Romoko Nagusien Etxea, 2012


SARRERAK

2012ko ekitaldian, sarrerak (Udalekoak eta erakunde autonomo-etaoak) 99,8 milioi eurokoak izan dira, 2011n baino 8 milioi gutxiago. Murrizketak, batez ere, beste erakunde batzuetatik jasotako transferentzietan du eragina, 2011n baino 6 milioi gutxiago jaso baitira. Aipatzekoak dira Udalkutxa, 2,5 milioi euro jaitsi dena, eta Toki Inbertsioko Estatu Funtsaren transferentziak (2.100.650 euro 2011n) eta Eusko Jaurlaritzak lankidetzat ekonomikorako emandakoak (587.447 euro 2011n) desagertzea, besteak beste.

Horrez gain, krisiaren eraginez eraikuntza-jarduera oso urria izan da, eta hori dela eta, hirigintzako sarrerak milioi bat euro baino gehiago jaitsi dira.

Horrekin guztiarekin batera, tasa batzuen izozte fiskala eta kasu batzuetan beherapenak ere egin direla esan behar da, 2009an gertatu zen bezala. Udal zergen ondoriozko sarrerak %3,2 jaitsi dira. Tasen eta prezio publikoen ondoriozko sarrerak ia-ia konstante daude. Beste sarrera batzuei dagokienez, aipatzekoa da Barceló hotelen katetik 1.200.000 euro jaso direla kalte-ordain moduan, Punta Begoñako galerietan ostalaritza-establizimendu bat eraiki eta ustiatzeko sinatu zen kontratua bertan behera geratu delako.

Diru-bilketaren ehunekoak handia izaten jarraitzen du, inguruko beste udal batzuetan baino handiagoa. Abenduaren 31n, ekitaldian aitortutako sarrerei zegokienez, kobrantzak %93ra iritsi ziren. Kobratzeko dagoen saldoa 6 milioi eurokoa da, 2011n baino 1,5 milioi gutxiago.



GASTUAK ETA INBERTSIOAK

Gastuei dagokienez, betearazpena 92,2 milioi eurokoa da, 2011n baino 12,3 milioi gutxiago.

Inbertsioak 18,1 milioi eurotik 8,9ra jaitsi dira. Zenbateko horretan, proiektu estrategikoetan egindako inbertsioa sartzen da (Algortako Getxo Antzokia eta HAPO berrikusteko prozesua), baita beste batzuk ere, hala nola Urgullen kokatutako Gizarte Zerbitzuen eraikineko sarbideak eta sotoa birmoldatzea, Ereagako La Terraza eraikina birgaitzea (bertan Turismo bulego berria kokatuko da), mantentze-lanak ikastetxeetan, ur-sareetan eta saneamenduan, argiterian, kaleetan eta parkeetan...

Bestalde, eta BEZak gora egin, KPIren gorakada onartu eta gastu batzuek indarrez gora egin duten arren, hala nola elektrizitateak, gastu arruntari eusteko etengabeko lanari esker, gastu hori 83,3 milioi eurotik 79,9ra jaitsi da, hau da, %4ko murrizketa gertatu da, eta 3,4 milioi euro aurreztu dira. Murrizketa horrek ez du eraginik izan gizarte-politiketara edo ekonomi sustapenera bideratutako partidetan. Era berean, lehentasuna eman zaio oinarriko zerbitzuak ematean kalitate ona eskaintzeari.

12,2 milioi euro gizarte-politika aurreratuak finantzatzeko erabili dira, hau da, adinekoak zaintzeko, beharrezan handienak dituzten pertsonen eta familien zuzeneko laguntzak emateko, hezkuntzarako eta beste herrialde batzuekiko lankidetzarako.

GIZARTE POLITIKAK	Euroak
KONTZEPTUA	GASTUA 2012
Udal egoitza	5.541.018
3.322 euro egoiliar bakoitzeko hilean	
Etxean laguntzeko zerbitzua	1.832.796
330 pertsona artatuta eta 67.453 orduko zerbitzua emanda	
Ikastetxe publikoak mantentzea eta jarduerak ikastetxeetan	791.511
8.184 ikasle eskolatuta	
Gizarte Larrialdiko Laguntzak	510.944
536 laguntza emanda	
Garapenerako lankidetzak	583.717
27 lankidetzak-proiektutik 206.440 pertsonak lortu dituzte onurak (Sahara, Guatemala, Peru, Bolivia, El Salvador, Kongo...)	
Esku-hartzea pertsonekin eta familiekin	320.548
7.477 pertsona eta 3.910 familia artatuta	
Diru-laguntzak boluntarioen elkarteei	312.599
Laguntzak 47 elkarteri desgaitasun, adineko, giza-bazterketa esparrutan.... lan egiteko	
Drogazaletasunen prebentzioa	230.726
4.663 ikasle eta 568 gurasok hartu dute parte prebentzio-egitasmoetan	
Berdintasuna	187.368
Laguntza Getxoko emakumeen elkarteei eta ikastaroak eta tailerrak antolatzea. 1.000 pertsona bertaratu dira guztira	
Immigrazio Planeko ekintzak	117.962
Kohesio eta kultura-artekotasunaren aldeko hainbat programa (Euskararen sustapena, Elkargunea, Getxon Bizi, Getxo Kulturen artean, Sentsibilizazioa ikasgelan)	

Gastatu diren 100 euro bakoitzetik 35 euro bideratu dira oinarriko zerbitzuak ematera (bideak garbitu eta zaborrak bildu, kaleak eta lorategiak mantendu, argiteria, herritarren segurtasuna, ur-hornikuntza, besteak beste). Oinarriko zerbitzu horiek erreferenteak dira, kalitate handia dutelako eta zerbitzuak eragin-kortasunez ematen direlako.

Horrez gain, azpimarratu egin behar da Udalak udalerrian jarduera ekonomikoa sustatzeko egin duen ahalegina. Guztira 2,5 milioi euro bideratu ditu herriko enpresak babesteko (aholkularitza, prestakuntza, dinamizazio-ekintzak...) eta turismoa sustatzeko.

OINARRIZKO ZERBITZUAK	Euroak	
KONTZEPTUA	GASTUA	
	GUZTIRA	PERTSONAKO
Bideak garbitu eta zaborrak biltzea	11.976.810	148
Herritarren segurtasuna	7.704.206	95
Ura eta saneamendua	4.278.052	53
Kaleak eta espaloiak mantentzea	3.372.480	42
Argiteria publikoa	1.542.006	19
Parkeen eta berdeguneen kalitatea	2.446.479	30
Hilerria	328.652	4
Osasun publikoa eta kontsumo arduratsua	181.670	2

GELDIKINA ETA MAILEGUAK

Likidazioak diruzaintzan 43,5 milioiko geldikina utzi du. Kopuru horretatik 9,3 milioi hirugarrenengandik xede zehatz baterako jasotako sarrerak dira, gaur egun gastatu ez direnak, eta 31,6 milioi euro mailegu-xedapenen kobrantzak dira. Mailegu

horiek 2000 eta 2005 urte artean itaundutakoak dira, hainbat inbertsio-egitasmo finantzatzeko. Maileguak Udal Diruzaintzan ezarri eta sartu diren bitartean, horiei lotutako inbertsioen zati bat denboran luzatu egin da eta ez da amaitu, eta

hortaz, ordaindu gabe dago. Geldikinen gainontzekoa, 2,6 milioi euro, prest dago gastu berriak finantzatzeko 2103ko aldian.

Mailegu horiek Udalari 1,2 milioi euroko etekina eman diote 2012an (eta 4,1 milioi azken

5 urteetan). Etekin horri esker,aldi horretan zergak eta udal tasak izoztu diren arren, zerbitzuen mailari eutsi egin zaio (gizarte-politikak, kalitatezko oinarriko zerbitzuak, ekonomia sustapena, kultura eta kirola...).

